ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

HEZKIDETZA EGITASMOA ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Espedientearen zenbakia: 2025-00206
Kontratu-mota: Zerbitzua
Kontratuaren xedea: HEZKIDETZA EGITASMOA EUSKARAZ GARATZEKO IDAZKARITZA TEKNIKOA.
Kontratatzeko prozedura: irekia
Espedientea tramitatuko duen arloa: Udal berdintasun saila

1. SARRERA ETA AURREKARIAK

Ondarroako hezkidetza egitasmoa ibilbide luzeko proiektua da. Egitasmo hau Ondarroako Udal Berdintasun arloak sustatzen duen prebentzioaren eremuan kokatzen da. Ildo horretatik, indarkeria matxista prebenitzeko ardatz estrategikoan zein Ondarroako emakumeen eta gizonen berdintasun planean aurreikusi diren konpromisoetan oinarritzen da.

Ondarroako Udaleko hezkidetza programaren hastapenak 2003. urtean kokatzen badira ere, 2009. urtetik aurrera proiektu integrala, ikas komunitate osoari begira eta HEZKIDETZA EGITASMOAREN baitan hasten da.

2010. urtean onartutako berdintasun planak, besteak beste, hezkidetza batzordearen sorrera zein hezkidetza programaren diseinua aurreikusi zuen.

2016. urtean zehar proiektuaren sistematizazioa egin zen: Ondarroako Hezkidetza proiektuak izandako eragina neurtzeko informazio baliagarria bildu, ikas komunitatearen inplikazio aktiboa bilatuz, prozesuan izandako praktika eta lan dinamika egokiak jasoz, honen ebaluazioa eta balorazioa burutzeko eta aurrera begirako lanerako oinarriak finkatzeko.

Urtero parte-hartzen duten ikas komunitateetatik jasotako balorazio baikorrek, proiektuak daukan harrera onaren erakusgarri baldin badira ere, aipatutako azterketa horretan proiektuaren ibilbidea eta memoria jasotzeaz gain, beharrak identifikatu ziren, eta besteak beste, hezkidetza egitasmoaren beharra eta jarraipena justifikatu zuen.

Indarrean dagoen Ondarroako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Udal PLANAk (2022-2025) hezkidetza egitasmoa estrategikotzat jotzen du. Hortaz,

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2025-04-07 08:12:02(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:12:02 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2025-04-07 08:18:05(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:18:05 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7478609b-a87d-4dc6-a4ec-934091343038) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Planaren ardatz guztien zehar aipagarria bada ere, besteak beste, *hezkidetza egitasmoaren osoko kontratazioa bermatzeko konpromiso politikoa* edota *egitasmoa eskola-antolaketa egituran errotzea hezkidetzan oinarritutako eskola- eredua modu koordinatuan sustatzeko* zehazten du.

Planaren azken urteko indarraldian gaudela, egoki ikusi da egitasmoaren gaineko hausnarketa egitea, horren ondorioz zenbait hobekuntza txertatu dira, besteak beste, LH3tik eskuhartzeak eskainiko dira gelaz gela.

Hezkidetza egitasmo honek honako ezaugarri nagusi eta eduki aipagarriak ditu: ikas komunitate osoari zuzendua (ikasle, irakasle, familiak eta eskolaz kanpoko hezitzaileak), prozesu izaera eta integraltasuna, gelan eskuhartzeko tailerrak mailaz maila LH3tik aurrera, prestakuntza estrategia nagusia da, material pedagogikoen sorkuntza eta hedapena, aholkularitza espezializatua ikastetxeetan, proiektu sendoa eta erreferentziazkoa bihurtu da, eta azkenik, herri hezkidetzailearen bidea hartu nahi du.

2. XEDEA

Udaleko hezkidetza egitasmoa euskaraz garatzeko idazkaritza teknikoa kontratatzea, honako helburu nagusi honekin: hezkidetzan oinarritutako hezkuntza bultzatzea herriko ikastetxeetan[1]. Egitasmo horrek barne hartzen du: gelan esku hartzeko tailerrak, ikastetxeetan hezkidetzaren gaineko aholkularitza espezializatua, ikas komunitate osoari zuzendutako prestakuntza, hezkidetza batzordearen kudeaketa eta dinamizazioa, material pedagogikoaren sorkuntza, egitasmoa herriratzeko estrategiak eta azkenik, egitasmoaren ebaluazioa eta koordinazioa.

3. HELBURUAK

Helburu orokorra: Berdintasunean oinarritutako hezkuntza bultzatzea herriko ikastetxeetan, hau da, jarrera hezkidetzailearen hedapena. **Hezkidetzak** jendarte eraldakuntzarako bitartekoa izan nahi du. Hots, pertsonen garapenerako bitarteko askatzaile bilakatu behar da, pertsona aske eta integralak heziz, eta sexuen arteko aukera berdintsuen alde eginez. Horrez gain, sexu aniztasunaren errespetuan lan

[1] Ondarroa Bigarren Hezkuntzako Institutua, Zaldupe Eskola Publikoa eta Zubi Zahar Herri Ikastola.

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2025-04-07 08:12:02(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:12:02 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2025-04-07 08:18:05(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:18:05 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7478609b-a87d-4dc6-a4ec-934091343038) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

egiten duen hezkuntza eredua da. Hau da, pertsona ororen askatasuna jorratzen duen pedagogia.

Egitasmoak neska eta mutil gazteen berdintasunerako eta feminismoaren indartzerako, aniztasun sexu afektiboa eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak garatzeko eta harreman egokiak bideratzeko helburuak jorratu nahi ditu. Aldi berean, emakume gazteen ahalduntzea eta parte hartzea indartzeko helburuak lantzen jarraitu nahi dira, baita berdintasuna eta feminismoarekin lotura izan nahi duten neska eta mutil gazte erreferenteak bidelagun izaten, honetarako berezko taldeak eta ekimenak ere sustatuz.

Helburu zehatzak:

- Gelan esku hartzeko moduluak bideratzea berdintasun irizpideetan oinarritutako balioak eta jarrerak bultzatzeko.
- Generoaren identitatearen gainetik ezartzea pertsonen identitatea, gaitasunak, baloreak, jarrerak eta portaerak.
- Bideak eraikitzea harreman eredu berriak sortzeko.
- Neska gazteekin antolakuntza lantzea.
- Ikastetxeetan hezkidetza gaineko aholkularitza eskaintzea.
- Egitasmoaren lana herriratzea.
- Egitasmo honen etengabeko ebaluazioa bultzatzea eta beharrezko hobekuntzak txertatzea.

4. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK ETA KUDEAKETA

Zerbitzuaren organo arduraduna Udaleko Berdintasun Saila da eta Udal arduradun teknikoa, berriz, udal berdintasun teknikaria. Esleipendunak haiekin izango du hartu-emana.

Euskaraz emango da zerbitzu osoa, hasi udalaren eta xede taldearen hartu emanetatik eta amaitu kontratutik eratorritako betebehar guztietan.
Aldi berean, dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere. Balio hauek sustatuko dira: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna, genero rolen eta identitateen aniztasuna, kultur aniztasuna eta elkartasuna.

Lizitatzaileak zerbitzuaren barruan sartzen diren jarduera guztiak diseinatu, antolatu, sustatu, zuzendu eta gauzatzeko betebeharra hartuko du. Hortaz, aurkeztuko den

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2025-04-07 08:12:02(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:12:02 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2025-04-07 08:18:05(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:18:05 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7478609b-a87d-4dc6-a4ec-934091343038) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

proiektu teknikoak atal horiek bildu eta kontuan izango ditu zerbitzuaren ezaugarri hauek guztiak, hortaz, egitasmoaren honako alderdiak bermatzeko estrategiak egokituko dituzte enpresa lizitatzailek:

4.1. PRESTAKUNTZA.

Ikas komunitate osoari zuzendutako prestakuntza: **ikasleei, irakasleei, familiei eta eskolaz kanpoko hezitzaileei**

Hezkuntza maila guztietan tailerrak txertatuko dira berdintasun-balioetan hezteko proiektu integrala abian jartzeko udalerriko gazteei zuzenduta. Horretarako, enpresa lizitatzaileek horren gaineko proiektu-proposamena aurkeztuko dute. Bertan zehaztuko dira: prestakuntzaren ordu kopurua, hezkuntza maila, nori zuzenduta dagoen (ikasleei, irakasleei zein gurasoei eta kanpoko hezitzaileei), edukiak eta metodologia. Aldi berean, prestakuntza hori moldatu beharko da kasuan kasu ikastetxe bakoitzaren egoerak horrela eskatzen badu.

A. Ikasleei zuzendutako eskuhartzeak:

Herriko gazteen beharretatik zein egunerokotasunetik abiatuta ibilbide formatibo bat osotu da, horrela **maila guztietan jarduerak aurreikusi dira eta bereziki gelan esku-hartzeak LH3tik batxilergora eta zikloetan.** Maila bakoitzean gai bat lantzen da eta edukiak, gaiak eta metodologia adin bakoitzera egokituko dira.

Honako hau da eskuhartzeen aurreikuspena, mailaz maila eta honako gai zein gutxieneko iraupenarekin:

Nori?	*Maila*	*Ordu*	*Gaia*
Ikasleak	LH3	2	Tratu onak eta harreman osasuntsuak taldean
	LH4	2	Norbere sexualitatea eta gorputza ezagutuz
	LH5	4	Tratu onen komunitateak eraikiz indarkeria matxistari aurre egiten
		2	Ondarroako emakumeen eta mugimendu feministaren aztarnak. Ibilbidea herrian zehar eta lanketari laguntzeko unitate didaktikoa.
	LH6	4	Norbere sexualitatea eta gorputza ezagutuz, kolektiboan saretu
		2	Ondarroako mugimendu feministaren eta LGTB mugimendu eta komunitatearen aztarnak. Ibilbidea herrian zehar eta lanketari laguntzeko unitate didaktikoa.
	DBH1	6	Elkarrerantzunkizuna eta bizikidetza
	DBH2	6	Harreman afektibo sexualak
	DBH3	6	Indarkeria sexistari aurre egin

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2025-04-07 08:12:02(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:12:02 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2025-04-07 08:18:05(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:18:05 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7478609b-a87d-4dc6-a4ec-934091343038) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

DBH4	6	Mugimenduan dagoen gizartea: erresistentzia kolektiboak eta intersekzionalitatea
Batxi.	4	Eraldaketa pertsonal eta kolektiboa: boteretzea eta desboteretzea
Zikloak	4	Haur Hezkuntza, Erizaintza eta Gizarteratze zikloak: Gatazka ikuspegi feministatik: gatazken kudeaketarako tresnak
Gela egonkorra		Landu beharreko gaia urtez urte moldatu eta egokituko da. Lehenesten diren gaiak: sexualitatea eta harreman osasuntsuak eta gorputz anitzak

Honako hau da 2024/2025 ikasturteko gela kopurua:

Maila	Gela/talde kopurua	Orduak	Orduak guztira
LH3	4	4	16
LH4	4	4	16
LH5	3	6	18
LH6	4	6	24
DBH1	4	6	24
DBH2	5	6	30
DBH3	5	6	30
DBH4	4	6	30
BATXI 1	2	4	8
BATXI 2	2	4	8
Gela egonkorra	1	4	4
ZIKLOAK1: HH	2	4	8
ZIKLOAK2: ER.	1	4	4
ZIKLOAK3: GIZ.	2	4	8

Enpresa lizitatzaileek, besteak beste, eskuhartze horien gaineko metodologia zein edukiak zehaztuko ditu dagokion proposamen teknikoan; horiek moldatzeko, hobetzeko eta handitzeko aukerarekin.

B. Gazte feministen txokoa

Ikasleei zuzendutako espazioa hau Etxelilan kokatuko da, ikastetxeetatik kanpo. Arestian deskribatutako saioei jarraipena emateko eta sakontzeko asmoa du, hezkidetza egitasmoa eta Etxelilaren arteko zubi-lana egiten.

Adjudikaziodunak txoko hori dinamizatuko du eta beharrezko neurriak hartu funtzionamendu egokia bermatzeko, besteak beste, ikasleen inplikazioa bilatu edota ikastetxean sortu daitezkeen bestelako guneekin elkarlana bultzatuz. Hitzaldiak,

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2025-04-07 08:12:02(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:12:02 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2025-04-07 08:18:05(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:18:05 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7478609b-a87d-4dc6-a4ec-934091343038) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

tailerrak edota antzerako jarduerak antolatuko dira, gutxienez, bi orduko hiru saioetan banatuak, horretarako beharrezko baliabideak esleituko ditu enpresa esleipendunak.

Txokoaren jarduera Etxelilako programarekin koordinatu beharko da.

C. Irakasleei zuzendua:

Herriko ikastetxe guztietan eta HHtik batxilergo eta zikloetako irakasleei zuzendutako **formazioa**, horrela proiektuaren ezagutzak zein ikasleekin landutako gaiak eta kezkak irakasleekin jorratuko dira jarrera hezkidetzailea hedatuz.

Gutxienez bi orduko bi saioa ikastetxe bakoitzeko.

Horrez gain, ikasleei zuzendutako eskuhartzeen ondorengo **deboluzio bilerak** adostuko dira irakasleekin. Horiek mailaz maila egingo dira ikastetxe bakoitzaren tutoreekin edota, hala badagokio, zuzendaritza taldearekin.

D. Familiei zuzendutako formazioa:

Familiak ere formatzaileak diren heinean hezkidetzaren baloreetan heztea da jarduera honen helburua; baita egitasmo honetan familien inplikazio maila handitzea ere.

Familia gehiagotara heltzeko erronkatik abiatuta, familia elkarteei inplikatzeko estrategian sakontzea proposatu beharko du enpresa lizitatzaileak, horiekin komunikazio bideak zabalduz, eta ondorioz, familien partehartzea handituz. Gutxienez honako bi hauek burutu beharko dira:

- Aurre bilerak familia elkarteekin ikasturteko lanketaren berri emoteko eta familia eskolak adosteko.
- Bi orduko saio bana ikastetxe bakoitzeko eta zikloka, hau da, LH eta HHko familiei zuzendutako saio bat zein DBH eta Batxilergoko familiei zuzendutako beste bat ikastetxe bakoitzean. Guztira 8 ordu.

E. Eskolaz kanpoko hezitzaileei zuzendutako formazioa:

Hezkuntza arautik haratago lanean aritzen diren hezitzaileei bideratutako formakuntza da. Hezkuntza ez formaleko hainbat eragile ere subjektu hezkidetzaile izateko prozesuan laguntzea izango da honen helburua

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2025-04-07 08:12:02(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:12:02 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2025-04-07 08:18:05(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:18:05 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7478609b-a87d-4dc6-a4ec-934091343038) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Hezitzaile hauei zuzendutako formazioak honako alderdi hauek jorratuko ditu: hezkidetza kontzeptua eta praktika profesionalean erreproduzitzen diren joerak: hizkuntzaren erabilera, komunikatzeko modua, jarrerak eta abar. Horrez gain, gai estrategikoak identifikatuko dira ikasturte bakoitzeko saioen edukiak eta gaiak egokitzeko.

Honako hau burutuko da ikasturte bakoitzean:

- Jantokiko hezitzaileekin zuzendutako bi orduko bi saio, goizeko ordutegian.
- Bi orduko saio irekia herriko hezitzaileei zuzenduta, arratsaldeko ordutegian.

4.2. AHOLKULARITZA TEKNIKOA:

Hezkidetzaren inguruko aholkularitza zuzena egitea ikastetxeetan eta etengabeko harremana izatea herriko ikastetxeekin. Era berean, irakasleek ager litezkeen eskaerak eta beharrizanak jasotzea eta erantzutea edota ikastetxean genero gatazkak konpontzeko laguntza eskaintzea eta hezkidetza programarekin batera antola daitezkeen pareko ekintzetan, ikastetxeek parte har dezatela lortzea.

Aholkularitza honen bitartez, hezkuntza komunitatean parte hartzen dituzten agente guztien aliantzak sortu nahi dira, herriko ikastetxeetan hezkidetzak sustatzen dituen baloreak hedatu eta egitasmoaren bisibilizazioa hezkuntza komunitate osoan.

Aholkularitza tekniko-komunitarioaren markoa prebentzioan kokatzen da, ez ordea esku hartzean. Helburu nagusia izango da hezkidetzarekin lotura zuzena duten zenbait egoeretan eman daitezkeen gorabeheren aurrean aterabideak proposatzea.

4.3. MATERIAL PEDAGOGIKOAREN SORKUNTZA

Hezkidetzaren baloreak hedatzeko eta proiektuaren filosofia zabaltzeko baliabide ezberdinen sorrera. Ikasturte bakoitzeko, gutxienez, hiru unitate didaktiko, mailaz maila jorratuko dira data esanguratsuen aitzakia erabiliz: azaroak 25, martxoak 8 eta maiatzak 17. Horrez gain, prestakuntza bideratzeko zein egitasmoaren hedapena egiteko bestelako materialak sortuko dira, esate baterako, aztarnen ibilbideei laguntzeko unitate didaktikoak.

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2025-04-07 08:12:02(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:12:02 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2025-04-07 08:18:05(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:18:05 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7478609b-a87d-4dc6-a4ec-934091343038) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

4.4. KOORDINAZIOA

Adjudikaziodunak hezkidetza batzordearen dinamizazioa eta kudeaketa egiteko ardura hartuko du. **Hezkidetza batzordea** 2007tik abian da. Batzorde hori herriko ikastetxeekin batera proiektua garatzeko gunea da. Partaideak honakoak izaten dira: ikastetxe bakoitzaren ordezkari bat, emakumeen kontseilua, familiak, hezkidetzako hezitzaileak eta udaleko ordezkari politiko zein teknikoak. Hausnarketa gunea da egitasmoaren jarraipena egiteko, esperientziak elkartrukatzeko eta plangintza komuna diseinatzeko zein hobekuntzak adosteko.

Hezkidetza batzordearekin, gutxienez, hiru hilean behingo bilerak egingo dira, non, besteak beste, hiru hilabete bakoitzeko memoria aurkeztuko da, dagokion unitate didaktikoa eta hurrengo hiru hilabeteetako programaren aurreikuspena.

Adjudikaziodunak hezkidetza batzordearen edo dagokion batzordearen funtzionamendu egonkorra bermatzeaz gain, herriko Ikastetxeek, Udal Berdintasun sailak eta Etxelilak antolatzen dituzten garrantzizko ekintzen berri dutela ziurtatu beharko du, eta ekintza horietan parte hartzen dutela bermatzeko beharrezko estrategiak erabili. Aldi berean, batzordekide berrien inplikazio bilatuko da.

Udalak ikastetxeetan hezkidetzaren aldeko lana bultzatu, dinamizatu eta koordinatu nahi du, horretarako enpresa lizitatzaileak koordinazio hori bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu, besteak beste, hezkidetza egitasmoaren eta Etxelila Emakumin Topalekuaren artean zubiak eraikitzeko. Horrek barne hartzen du Etxelilan egun dauden edota sortu daitezkeen egitasmoen eta zerbitzuekin koordinazioa bermatzea, bereziki sexu aholkularitza bulegoarekin.

Udal berdintasun sailarekin etengabeko harremana eta koordinazioa bermatuko da, gutxienez bi hilean behingo bilerak zehaztuko dira.

4.5. PROIEKTUA HERRIRATZEA

Hezkidetza Egitasmoak ikastetxeetatik haratago jo nahi du herri hezkidetzailearen bidean. Horretarako neurri ezberdinak hartuko dira (horren kudeaketaren ardura hartuko du enpresa esleipendunak eta lan taldeak), esaterako: familien zein eskolaz kanpoko hezitzaileen inplikazioa handitu, herri osoari/komunitateari zabaltzeko neurriak, hezkidetza txokoa sortu Etxelilako liburutegian, sare sozialen bidez egitasmoa

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2025-04-07 08:12:02(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:12:02 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2025-04-07 08:18:05(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:18:05 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7478609b-a87d-4dc6-a4ec-934091343038) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

komunikatu eta zabaldu (Facebook eta Instagram), gazte feministen txokoan ikasleen inplikazioa eta bestelako neurri berritzaileak.

Ikastetxeetan edota hezkidetza batzordean adosten den eran eta momentuan zentroetan egiten ari den lana herriratzeko berezko proposamenak landuko dira, hau da, "hezkidetza kalera" ekimena bultzatuko da. Horretarako, baliabideak eta metodologia erraztu egingo da, baita gauzatzeko behar besteko laguntza ere.

Beraz, proiektua herriratzeko hobekuntzak zehaztuko dira, besteak beste, komunikazio estrategia egokia bilatu eta jarduera bereziak proposatzen. Herrian berdintasun arloan egiten den lanarekin uztartu nahi da egitasmoan egiten dena, eta alderantziz, herrikoa hezkidetza egitasmoarekin uztartu, sare lana bultzatuz.

Egitasmoaren zabalkundea egitean Ondarroako Udalaren eta Hezkidetza egitasmoaren logotipoak erabili beharko dira.

4.6. GIZA BALIABIDEAK

Hezitzaileen lan talde bat (gutxienez, bi) osotuko da tailerrak eta prestakuntza mota guztiak bideratzeko eta egitasmoa bere osotasunean bermatzeko. Lantalde hori hezkidetzan espezializatua izango da, hala nola, zehaztutako gaitasun profesionala izan beharko dute. Lehenetsi egingo da bata gizonezkoa eta beste emakumezkoa izatea. Enpresa esleipendunak bermatuko du lan talde horren dedikazio eta presentzia herrian. Orotara, ikasturtean 725 ordukoa izango da eman beharreko zerbitzua.

Hezitzaileen lan talde horrez gain, enpresa esleipendunak bestelako jarduerak burutzeko (gazte feministen txokoaren dinamizazioa, irakasleei zein eskolaz kanpoko hezitzaileei zuzendutako formazioak, esate baterako) beharrezko giza baliabideak egitasmoaren eskura jarriko ditu.

4.7. EGITASMOAREN EBALUAZIOA EGITEA ETA BEHARREZKO TXOSTENAK AURKEZTEA

Horrela, egitasmo hau sistematizatzeko asmoz, dagokion batzordearen gai zerrendak eta bilera agiriak jasotzeaz gain, prozesu osoa sistematizatuko da, beharrezko txostenak aurkeztuz eta ikasturte bakoitzeko ebaluazio txostena eta memoria eginez.

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2025-04-07 08:12:02(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:12:02 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2025-04-07 08:18:05(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:18:05 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7478609b-a87d-4dc6-a4ec-934091343038) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Proiektu teknikoan partehartzaileen ekarpenak, iritziak eta motibazioa jasotzeko tresnen proposamena egingo da bai eta proiektuaren sistematizazioa eta ebaluazioa bermatzeko metodologia.

Ondarroan, sinadura digitaleko egunean.

Izp.: Rosa Baltar Cabo
Berdintasun teknikari

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2025-04-07 08:12:02(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:12:02 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2025-04-07 08:18:05(UTC) Fecha: 07/04/2025 08:18:05 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7478609b-a87d-4dc6-a4ec-934091343038) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia